



ARRASATEN SAN JOSEPEKO HARROBIAREN HUTSARTEAREN ETA GERTUKO INGURUNEAREN ETORKIZUNEN DISEINUA EGITEKO IDEIEN LEHIAKETA ARAUTU BEHAR DUTEN ARAUAK (INGURUMEN, GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOKO ERREKUPERAZIOA)

Lehiaketa mota.

Ideien Lehiaketa bat da, irekia, baina Epaimahai batek esku hartzen du.

Sariak izango dira eskudirutan, eta Lehiaketak berez ez du esan nahi Ideia garatzeko Proiektu Teknikoak aginduko zaizkiola lehiaketa irabazleari. Geroago, Udalak egoki iritziz gero, irabazle horrekin gauzatu ahal izango du dagokion kontratua edo dagozkion kontratuak, dagozkion agiri teknikoak idazteko, eta indarrean dagoen administrazio kontratazioaren legerian xedatutakoa hartuko da kontuan.

San Josepeko harrobiaren hutsartean hirigintza eta arkitektura arloko esku-hartzeak gauzatzeko Ideiak lortzea da kontua, aurrerago aurkeztuko ditugun helburuen arabera.

Bi fasetan garatuko da lehiaketa; horietako batean agertuko da aurkeztutako proposamenen erakusketa bat egitea eta herritarrek parte hartzeko prozesu bat garatzea.

Lehiaketaren segida hauxe izango da:

- **Lehen fasea:** lehiaketa irekia, gehienez 5 proposamen aterako dira. Honek aukeratuko du:
 - Epaimahaiak 4 proposamen finalista aukeratuko du.
 - Herritarrek, kontsulta publikoaren bidez eta antolatuko den botazioaren bidez, 5. proposamen finalista aukeratuko dute.

Aurrekoaren ondorioetarako, Lehiaketan aurkeztutako proposamen guztiak jende aurrean jarriko ditugu Arrasateko Kulturate kultura etxean. Erakusketa horretan jakin eta aztertuko dituzte herritarrek zer proposamen aurkeztu diren, eta hor emango dute botoa egokienaren alde.

- **Bigarren fasea:** Aukeratutako 5 proposamenen egilei mugatutako lehiaketa, eta hortik aterako da proiektu irabazlea.